



Zuzia

HATZESIA APURTUZ, BIDEA ZABALDUZ

4. zenbakia.

2021eko azaroa.

BERRIAK

EUSKAL HERRI LANGILEAK APURKETA MANIFESTAZIOA

ABENDUAK 6, 12:30 LANDAKO GUNEKO TXIMINIATIK

ABENDUAREN 6AN DENOK DURANGORA! EUSKALHERRI LANGILEAK APURKETA!

JARKI antolakunde iraultzaileak manifestazioa deitu du, abenduaren 6an, 12:30etan, Durangoko Landako Guneko tximiniatik abiatuta...

[Edonon sakatu](#)

KOLONIALISMOA, NAZIO AUZIA ETA EUSKAL HERRIA



- 1952-1960 bitartean iraun zuen "Mau Mau" matxinadan zehar keniatarrak gogor jazarri zituen Erresuma Batuak

Euskal Herriaren askatasunaren alde lerratzen garenon arteko eztabaida politikoetan, ugariak dira nazio auzia protagonista duten uneak eta hauetan, ohikoa da kolonialismoa edo kolonia bezalako terminoen agerpena. Baina...

[Edonon sakatu](#)

INTERNAZIONALISMO PROLETARIOA



- 1960ko irailaren 18an Fidel Castrori harrera egiteko jendetza, New York

Internazionalismo proletarioa munduko langileen arteko elkartasun harremanen funtsezko oinarria da, zapalkuntza forma ororen gaindipenerako eta sozialismoa mundu mailan eraikitzea iparrorratz gisa jardun behar duena. Langileen interes komunetan oinarritutako batasun aktiboa

[Edonon sakatu](#)

FORMAKUNTZA

GATAZKA, BORROKEN OINARRI


Egunerokotasunean zapalketa eta injustizia ugari jasaten ditugu, oso izaera eta bilakaera ugariak dituztelarik. Hauei aurre egiteko, antolatzea eta borrokatzea ezinbesteko baldintza da. Gure bizitzan jasan edo ingurukoengan ikusten ditugun zapalketak borrokatzeko era askotara antola eta borroka daiteke. Hala ere,

borroka esparru asko eta ezberdinak egoteak ez du esan nahi hauen arteko harremanik eta eraginik ez dagoenik. Hori dela eta, borroken arteko elkarloturak ikusteko gai izan behar gara. Azken finean,

iraultzaileon helmuga inolako esplotaziorik eta zapalkuntzarik gabeko gizarte bat...

[Edonon sakatu](#)

HAUSNARKETA




GERRA MILITARKI BUKATZEAR SIRIAREN EGOERAZ

Azken asteotan AEBetako administrazioak bere arabiar estatu sateliteei Siriar Arabiar Errepublikara — hemendik aurrera SAE — enbaxadoreak bidaltzea ahalbidetuko diela ikusi dugu albistegietan. Alabaina,

zehapen-ekonomikoen mehatxupean...

[Edonon sakatu](#)

ELKARRIZKETA



Urte askotan zehar, 2011ko martxoan hasi ziren protesten inguruko bertsio ugari entzun izan dira. 10 urte igarota, 410.000 hildako, 8 milioi barne desplazatu eta beste 4 milioi kanpo desplazatu egon ondoren, **Firas Alcharani**, egun Valentzian beharrean diharduen damaskoar medikuarekin mintzatu gara. Firas **gaztetan Siriako armadaren parte izan zen militante komunista...**

[Edonon sakatu](#)



jardun_koordinadora



jardun_koordinadora



JARDUN_KOORDINADORA
@JardunK

www.jardunkoordinadora.com



[Menura bueltatu](#)


BERRIAK

BERRIAK



ABENDUAREN 6AN DENOK DURANGORA! EUSKAL HERRI LANGILEAK APURKETA!


JARKI antolakunde iraultzaileak manifestazioa deitu du, abenduaren 6an, 12:30etan, Durangoko Landako Guneko tximiniatik abiatuta. Espainiako konstituzioa, espainiar estatuak frantziar estatuarekin batera Euskal Herriko langileriak pairatzen duen zapalketa erabat normalizatzen duen tresna dugu, zilegitasunetik eratorritako legaltasunaz janzten duelarik. Joan zen urtean JARKI-k ez zuen abenduaren 6an mobilizaziorik burutu, pandemia egoeraren ondorioz planteatu zen azoka formatuak antzu bihurtu baitzuen dinamika hori gauzatzea. Era berean, osasun egoera zela medio emandako eskubide zibil eta politikoen murrizketek ez zuten dinamika horren gauzapena bideragarri egiten parametro politikoetan.



"Espainiako konstituzioa, espainiar estatuak frantziar estatuarekin batera Euskal Herriko langileriak pairatzen duen zapalketa erabat normalizatzen duen tresna dugu, zilegitasunetik eratorritako legaltasunaz janzten duelarik."

ALDE HEMENDIK! INDAR ERREPRESIBOAK KANPORA!


Urriaren 12an, JARDUN koordinadorak data honen inguruko salaketa egiteko kanpaina komunikatiboa burutu zuen Euskal Herriko kaleetan zehar, Euskal Herriak pairatzen duen izaera militarreko okupazioa salatu, hau aurrera eramaten duten kolore ezberdinetako txakurrak seinalatu eta euren disolbatzea galdegiten zuelarik. Izan ere, koordinadoraren arabera, Euskal Herria



militarki okupatuta dagoen bitartean, Euskal Herri Langileak nazio zein klase parametroetan zapalduta dirauen bitartean, espainiar nazio eguna intsumisio eguna izatetik haratago, espainiar estatu burgesarekiko apurketa oinarritzat eduki behar duen borroka eguna dugu. Era berean, Busturialdeko JARKI-ko taldeak JARDUN-ek aurrera eramandako kanpaina nazionalarekiko lanketa osagarria burutu zuen bere eskualdean.

BUSTURIA HERRI BOTERETIK ERAIKIZ


Busturialdeko eskualdeko JARDUN-eko koordinazio markoak Sukar horia, AZET eta JARKI antolakunde iraultzailearen arteko mahai-ingurua antolatu zuen azaroaren 12an, Gernikako Astran. Mahai-inguru honek esparru ezberdinetan aritzen diren izaera ezberdinetako antolakundeen esperientziak, ikuspuntua eta estrategiak partekatzeko aukera eman zuen. Horrela,



antolakunde bakoitzaren dinamika Busturialdeko eskualdean ezagutzera emateko aukera zabaltzeaz gain, kontzientziazioa eta borroka ideologikoa aurrera eramateko betak ireki ziren. Illo horretatik, hurrengo egunean, kontzertuak burutu ziren Astrako gunean.

HITZALDIAK URIBE KOSTAN

Uribe Kostako JARKI antolakunde iraultzaileko taldeak ekonomia politikoaren kritikaren inguruko hitzaldi bi antolatu zituen azaroan zehar, Sopelako Plaza Beltza kultur gunean. Lehenengoa, azaroaren 4an gauzatu zen, "Borroka ekonomikotik borroka politikora" izenpean. Bertan, gaur egun langile antolakuntza marko ezberdinen inguruko azalpena emateaz gain, langile



borrokara zuzendutako estrategia ezberdinen inguruko azalpenak eman ziren, bakoitzaren ezaugarriak, izatea eta mugak aipatu zirelarik. Honen ondoren, azaroaren 11n, "Krisiaren teoria marxista"-ren inguruko hitzaldia eman zen. Bertan, formakuntzara zuzenduta kapitalismoaren, merkantzien dinamikaren, lan indarraren eta gainbalioaren inguruko azalpen pedagogikoa burutu ondoren, autore marxista ezberdinek kapitalismoaren krisiaren eta honen inguruan burututako krisiaren teoriari buruz aritu zen.

HITZALDI ANTIERREPRESIBOAK GASTEIZEN

Gasteizko JARDUN-eko Koordinazio Markoak, estatuak eta bere txakurrek Euskal Herri Langilea jazartzeko darabiltzaten errepresioaren izatea eta funtsa eta, honen aurrean, ustez langileok ditugun eskubideez kontzientziatzeko hitzaldiak antolatu zituen, Gasteizko gaztetxean, azaroaren 6an. Horretarako, langileok espainiar estatuko legediaren aurrean zelan aritu eta administrazioak zein epaitegiek langileen zein mugimendu iraultzailearen aurka jotzeko darabiltzaten legeen inguruko azalpena jasotzeko aukera izan zuten bertaratutakoek abokatu baten eskutik. Honen ostean, alternatiba iraultzaileak maila ideologikoan eta praktikoan errepresioaren inguruan egiten duen teorizazioa eta irakurketa azaldu ziren, honi aurre egiteko JARDUN-ek amnistia erdiestera begirako duen planteamendu estrategikoarekin batera.

AXIO ETA KABI, GOGOAN ZAITUZTEGU!

Etxarri Aranatzeko alternatiba iraultzaileko kideek, 1979ko urriaren 8an txakurren aurkako tiroketa batean eroritako Juan Inazio Erdozia Larraza "Axio" gogora ekartzeko ekitaldia burutu zuten, herriko plazan eta baita Axio hil zenekoan Etxarri-Aranatz txakurrengatik hartuta zegoenez gero, bere gorpua utzi behar izan zuten lekuan ere, Lizarrustin, alegia. Halaber,

Deustuko Amnistiaren Aldeko Taldeak hilabeteko azken ostegunean burutzen duen kontzentrazioan, 1991ko urriaren 25an eroritako Jabi Goitia "Kabi"-ri omenaldi xumea baina sentikorra eskaini zioten. Aipatutakoak ez dira ezezagunak. Ez dira zerrenda batean galdutako izenak, edota aurpeirik gabeko ezezagunak. Axio eta Kabi herri honetako gudariak dira. Bakoitza bere historia eta ibilbidearekin, garai eta egoera ezberdinetan erailak, baina hirurak Euskal Herriaren aldeko konpromisoa eta honekiko maitasuna bultzatutako borrokan zehar eroriak. Horiek dira herri honetako gudarien izenak. Euren oroimena, euren eredu, eurek aurrera eramandako militantzia politikoan eta egintzetan herriaren gogoan oinazez eta malkoz markatuta geratu dena.

JARDUN-EN AURKEZPENEK AUERRERA DARRAIE

JARDUN - Euskal Herri Langilearen Alternatibak, alternatiba iraultzailearen planteamendua eta proiektu politikoak ezagutzera eman, eta interesa duen orori bertan parte hartzeko urtean zehar burutzen ari den aurkezpenetan murgilduta jarraitzen du. Oraingoan, Leioa eta Gasteizko unibertsitatez gain, Bilboko Bilbo Zaharrean ere burutu ditu aurkezpenak.

Halaber, hurrengo aurkezpenak azaroaren 26an, 19:00etan, Muskizeko kultur etxean eta abenduaren 1ean, 19:00etan, Atekabeltz Herri Gunean izango dira.

**KOLONIALISMOA, NAZIO
AUZIA ETA EUSKAL HERRIA**




• 1952-1960 bitartean iraun zuen "Mau Mau" matxinadan zehar keniatarrak gogor jazarri zituen Erresuma Batuak

Euskal Herriaren askatasunaren alde lerratzen garenon arteko eztabaida politikoetan, ugariak dira nazio auzia protagonista duten uneak eta hauetan, ohikoa da kolonialismoa edo kolonia bezalako terminoen agerpena. Baina zer da zehazki kolonia bat? Egokia al da Euskal Herria kolonia bat dela baieztatzea? Ikus dezagun.

Kolonialismoa potentzia inperialek bestelako herrialdeak beren interesen arabera azpiratzeko helburuz ezartzen duten menderakuntza sistema da. Esplotazio sistema honek ekoizpen modu ezberdinak ezagutu izan ditu eta, horren arabera, forma desberdinetan garatu da mendeetan zehar, Ameriketako prozesu kolonizatzailetik hasita, Afrikaren banaketatik igaro eta neokolonialismoaren garaietaraino.

Kolonialismoaren bilakaeran, badira bortxa eta okupazio militarren bitartez herrialde ezberdinetan inposatuak izan diren sistema politiko arrotzak. Beste batzuetan, ordea, neokolonialismo gisa ezagutzen den prozesuan, potentzia kolonizatzaileak ez du zertan menderakuntza politiko-militarra zuzenki erabili behar izan. Izan ere,

dominazio sistema honen forma guztiek historikoki komunean izan duten baldintza determinantea menderakuntza ekonomikoa izan da.



lido horretatik, kolonietan kolonizatzaileen interesen mesedetan diharduen egituraketa ekonomikoa indarrez ezartzen da, bertako lurrak eta menpeko klaseak ekonomikoki ustiatzeko helburuz. Lurrari dagokionez, ustiapena baliabide energetikoetan, mineraletan edota elikagai lehengaietan zentra daiteke. Menpeko klaseen kasuan, esklabismo baldintzetatik lan indarraren neurrigabeko esplotazioraino heltzen da.

Kolonien azpiegitura ekonomikoa osagarria zaio potentzia kolonizatzaileari eta, oro har, ekoizpen baliabideak azpigaratuta izatera kondenatzen zaie, horrek dakarren atzerapen ekonomikoarekin. Honek kolonien beste ezaugarri bereizgarri bat eragiten du, menpekotasun egoeran mantentzen dituzten eta erdigune inperialistaren mesedetan ezartzen diren merkataritza harreman desorekatuen agerpena, alegia.

Azpiegitura ekonomikoaren bidezko dominazioa kolonian ezartzen den gainegituran islatzen da ezinbestean eta horrek, potentzia kolonizatzailearengandik bereiziaz diren forma politiko-juridikoak garatzea eragiten du.




"Lurrari dagokionez, ustiapena baliabide energetikoetan, mineraletan edota elikagai lehengaietan zentra daiteke. Menpeko klaseen kasuan, esklabismo baldintzetatik lan indarraren neurrigabeko esplotazioraino heltzen da."

Hau guztia aintzat hartuta eta gure testuingurura ekarrita, ezin daiteke esan Euskal Herria kolonia bat denik. Espainiako eta Frantziako estatuak potentzia kolonizatzaileak izan dira eta izaten segitzen dute. Era berean, bi estatu hauek Euskal Herria nazionalki menpean dute.

Hala ere, honek ez du esan nahi baina, Euskal Herriarekiko aurrera daramaten zapalkuntza termino kolonialistetan ulertu daitekeenik.

Euskal Herria nazionalki zapalduta dago, Espainiako eta Frantziako estatuek asimilazio nazionala lortzera bideratutako politikak gauzatzen dituzte, gure lurraldea militarki okupatzen dute, euskal naziotasuna ukatzen dute eta gure identitate nazionalaren oinarri den euskara etengabe jazartzen dute. Horrek guztiak, ordea, ez du Euskal Herria kolonia bilakatzen. Kolonia izateak, arestian ikusi bezala, inplikazio ekonomiko esanguratsuak ditu kolonizatua den herrialdearentzat eta baldintza horiek ez dira hemen existitzen.

Aitzitik, Euskal Herria erdigune inperialistan kokatuta dago eta ekoizpen baliabideak oso garatuta daude bertan. Euskal Herrian ez da indarrez atzerapen ekonomikoan mantendutako azpiegiturarik existitzen, estatu zapaltzaileengandik bereiziaz eta hauekiko osagarri dena.



• 1954ko maiatzaren 7an Viet Minh-eko soldaduak garaipena ospatzen Dien Bien Phun, Vietnam

Dena den, kolonia bat ez garela defendatzeak ez du Euskal Herriak sufritzen duen zapalkuntza gutxiesten, ez eta bere askapen nazionalaren aldeko borrokaren zuzentasuna eta zilegitasuna kolokan jartzen. Edozelako zapalkuntza gainditzeko gai izateko baina, ezinbestekoa da hau ongi identifikatu, ulertu eta termino zuzenetan analizatzea. Izan ere, dominazio forma bakoitzak berau gainditzeko potentzialtasuna duen subjektua determinatzen baitu.

Tesi kolonialistak nazio zapalkuntzari aurre egiteko fronte nazional interklasista ardatz duen izaera estrategikoko aliantzen eraketari bide ematen dio, eta hori ez da aukera bat. Euskal Herriko nazio auzia soilik bere klase interesen alde darabilen eta bertako langileen esplotazioaz aberasten den euskal burgesiarekin ez dago bidea egiterik.

"Horrek guztiak, ordea, ez du Euskal Herria kolonia bilakatzen."

Nazio auzia klase parametroetan ulertzeak, zapalkuntza forma honen errora jotzera garamatza halabarrez. Euskal Herriak sufritzen duen zapalkuntza nazionalak espainiar eta frantziar burgesien interespean garatutako merkatu estatal homogeneoen eraketan du jatorria. Auzi nazionala, beraz, ekoizpen modu kapitalistaren baitan jaioa bada, zapalkuntza hori gaindi dezakeen bakararra aldi berean kapitalismoarekin bukatzeko potentzialtasuna daukan subjektu bakararra izango da, Euskal Herriko langileria, alegia. Askatasun nazionalaren alde, ekin diezaiogun bada Euskal Herri Langilearen antolakuntza indartzeari.

INTERNAZIONALISMO

PROLETARIOA




• 1960ko irailaren 18an Fidel Castrori harrera egiteko jendetza, New York

Internazionalismo proletarioa munduko langileen arteko elkartasun harremanen funtsezko oinarria da, zapalkuntza forma ororen gaindipenerako eta sozialismoa mundu mailan eraikitzea iparrorratz gisa jardun behar duena. Langileen interes komunetan oinarritutako batasun aktiboa gorpuztu behar du, klase dominatzailearen eta honek bultzatutako zapalkuntza eta esplotazio mekanismo guztien kontra bideratu behar dena.

Batasunaren tesi honek printzipio argi bat dauka, hots, herrialde bateko langileriaren borroka ezin dela beste herri langile batek aurrera daraman borrokatik isolatuta ulertu. Elkarloturak beharrezkoak dira borroka iraultzaile orotan, eta argi dago mugimendu iraultzaile ezberdinen arteko laguntza beharko dela sozialismoa mundu mailan eraikitzeko. Esplotazioarekin amaitzeko bidean, proletalgoak, munduan hegemonikoa den ekoizpen modu kapitalista deuseztatzea eta klase gizartearekin bukatzea, eta horretarako ezinbestekoa da muga nazional ez gaindikoa klase kontzientzia sustatzea, etsaia tokian tokiko izatetik urrun mundu mailakoa baita.

Langile klase kontzientzia hau, ordea, ez da eraginkorra bilakatzen ez bada elkartasunean oinarritutako praxi iraultzaile batean islatzen eta honek, gainontzeko



herrialdeetan beren helburuak lortzeko bidean abiatutako prozesu iraultzaileek beharrezkoa duten elkartasuna eta sostengua ematea eskatzen du. Hala ere, azpimarratu beharra dago honek guztiak ez duela herri langile bakoitzaren askapen nazionalaren aldeko borroka baztertuta uztea inplikatu behar. Hau da, internazionalismo proletarioak eskatzen duen nazioz gaindikoa elkarlan eta egituraketa norbere antolaketa marko territoriala errespetatuz eramango da aurrera, nazioen subiranotasuna aitortuz eta autodeterminazio eskubidea bermatuz, betiere, hauek langileriaren klase interesen alde edo interes inperialisten aurka garatzen badira.

Honen harira, aipatu beharra dago zenbaitetan internazionalismoaren inguruko ideia desitxuratu bat aurkeztu dela, hau soilik nazio zapalduen autodeterminazio eskubidearekiko errespetu gisa aurkeztu duena, eta hori funtsezkoa bada ere, ezin da nahikoa izan. Nazio zapaldu eta bertako langileriaz haratago, nazio zapaltzaileetako langile esplotatuak ere barne hartu behar dira, munduko zapaldu guztiak azken




"Elkarloturak beharrezkoak dira borroka iraultzaile orotan, eta argi dago mugimendu iraultzaile ezberdinen arteko laguntza beharko dela sozialismoa mundu mailan eraikitzeko."

batean. Izan ere, Euskal Herriaren testuinguruan, Frantziako eta Espainiako estatuetakoko herri langileak gure etsai berdinegatik esplotatuak baitaude. Bada, bertako langile bakoitza indibiduo gisa politikoki defendi dezakeenaz haratago, Espainiako eta Frantziako estatu zapaltzaileak eta bertako burgesiak dira Euskal Herriaren zapalkuntza nazionala aurrera daramatenak, burgesia lokalaren laguntzaz.

Illo beretik, egun bizi dugun kapitalismoaren pean ematen den nazioarteko lanaren banaketaren bitartez herrialdeen artean sortzen den botere harremana aintzat hartuta, Euskal Herria erdigune inperialistan kokatuta dago. Horrela, bertako garapen tekniko-zientifikoa eta ekonomikoa periferiako herrialdeen langile eta lehengaien esplotazio sakonari esker azkartu da. Honek, hala ere, ez gaitu euskal langile gisa periferiako langileekiko etsaitasun edo esplotazio harreman batean kokatzen, soldatapeko langile orok jasandako zapalketaren funtsa bera baita.

Funtsezkoa da, beraz, estatu burgesek herrialde ezberdinetako langileak azpiratuta eta banatuta mantentzeko darabilten mekanismoak identifikatu eta herri langileen arteko harremanak hauen gainetik



eraikitzea. Aldebikotasunean oinarritutako elkartasunak bakarrik lor baitezake elkarrekiko babesa eta batasun sentimenduak areagotzea, praxi iraultzaile koherente bat aurrera eraman ahal izateko. Honekin guztiarekin Euskal Herrian burutu beharreko prozesu iraultzaileak internazionalismo proletarioa funtsezko printzipio ideologikotzat izan behar du. Langile iraultzaileon egin beharra mundu mailan kapitalismoa suntsitzea izan behar da eta, hortaz, Euskal Herriko prozesu iraultzaileak bide horretan bere ekarpen propioa egin beharko du, bere borroka munduko langileriaren borrokaren baitan ulertu beharra dagoelarik. Gure herrian estatu independente eta sozialista martxan ipintzen den heinean, bertako klase zapaltzaileak munduko beste eremuekin dituen harreman esplotatzaileak deuseztatuko lirateke aldi berean. Horrela,



"Langile iraultzaileon egin beharra mundu mailan kapitalismoa suntsitzea izan behar da eta, hortaz, Euskal Herriko prozesu iraultzaileak bide horretan bere ekarpen propioa egin beharko du, bere borroka munduko langileriaren borrokaren baitan ulertu beharra dagoelarik."

munduko zapalduentzat eredu eta laguntzaile izan behar da etorkizuneko Euskal Estatu independente eta sozialista. Prozesu iraultzaile ezberdinen arteko artikulazio eta uztarketa nola emango den, ordea, praxiaren bitartez bakarrik zehaztu ahal izango da.

Internazionalismo proletarioaren printzipiopean jarduteak, nazio mailako prozesu iraultzailea eta bertako langileen interesak iraultza internazionalaren interes gorenera azpiratuta egotea eta honi erantzutea eskatzen du. Aitzitik, honek ez du esan nahi mundu mailan iraultza garatzeko baldintzak egon arte itxoin behar denik herri langile batek bere prozesu propioa martxan jarri ahal izateko. Are gehiago, herrialde bakar batean langileriak boterea har dezake iraultza internazionalaren garaipena lortzeko baldintzarik egon gabe. Erreakzionarioa da, beraz, mundu osoko iraultza proletarioaren zain egotearren, herrialde batean sozialismoaren eraikuntza ezinezkotzat jotzea. Hortaz, internazionalismo proletarioa oinarri, Euskal Herri Langileak prozesu iraultzaileari ekin behar dio Euskal Estatu independente eta sozialista eraikitzea helburu.

Menura bueltatu



FORMAKUNTA

GATAZKA, BORROKEN OINARRI

Egunerokotasunean zapalketa eta injustizia ugari jasaten ditugu, oso izaera eta bilakaera ugariak dituztelarik. Hauei aurre egiteko, antolatzea eta borrokatzea ezinbesteko baldintza da. Gure bizitzan jasan edo ingurukoengan ikusten ditugun zapalketak borrokatzeko era askotara antola eta borroka daiteke. Hala ere, borroka esparru asko eta ezberdinak egoteak ez du esan nahi hauen arteko harremanik eta eraginik ez dagoenik. Hori dela eta, borroken arteko elkarloturak ikusteko gai izan behar gara. Azken finean, iraultzaileen helmuga inolako esplotaziorik eta zapalkuntzarik gabeko gizarte bat eratzea den heinean, borroka ororen zergatia ulertu eta geurea egin behar dugu: injustizien ezabapena, hain zuzen.

Baina modu batean ala bestean borrokatu beharraren zergatia injustiziaren oinarrian dago: gatazkan. Batzuk nagusiagoak dira, beste batzuk gatazka zehatzagoak. Gatazkaren izaera ezagutzea garrantzitsua da, ondoren borroka ezberdinen izaera, bilakaera eta haien arteko elkarloturak beste begirada batekin aztertzeko.

Gatazka bat bi subjektu edo gehiagoren artean ematen den egoera da. Egoera hori sortzeko, subjektu bakoitzak helburu ezberdinak ditu esparru berdinen baitan, eta helburu hauek kontrajarriak izatean sortzen da gatazka. Hau da, gatazkako alde batek bere helburuak osotasunean lortuko balitu, beste aldeak ez lituzke bere helburuak lortuko. Gatazka bateko eragileen arteko harremana modu askotara gara

"modu batean ala bestean borrokatu beharraren zergatia injustiziaren oinarrian dago: gatazkan."

daiteke: negoziatzen, lehiatzen, konfrontazioaren bitartez... Noski, gatazkan parte hartzen duten eragileen indar korrelazioaren eta erabakien arabera gatazka bat modu ezberdinetan gara daiteke. Azken finean, gatazka baten garapena ez dago zertaa aurretiaz zehaztua eta erabakia izan.

Esparru zehatz batean helburu edo nahi kontrajarriak plazaratzeak ez du zertan konfrontazioan amaitu behar beti. Gatazka baten aurrean kontsentsuetara iristeko aukera posiblea da. Demagun poliziak bizilagun bat atxilotzen duela burutu duen jardun politikoarengatik. Gertakariaren aurrean, herrikideak batu eta zer egin zehazteko batzean, bertaratueta batzuek egoera salatzeko herriko plazan kontzentrazioa burutzea nahi dute, eta beste batzuek herrian zehar manifestazioa. Protesta mota bat egiteak bestea ez egitea suposa dezake, baina haien artean argudioak eman eta kontsentsu batera irits daitezke: bi ekintzak bateratu, hirugarren bat adostu...

Antzekoa gertatzen da egunerokotasuneko gatazka ezberdinetan: lantokian lankideekin, eskolan talde lan bat burutzen,

"Egoera batzuetan helburu kontra-jarriak ezin dira inola ere ez adostasun bidez edo lehiaren bidez kudeatu."

familiarekin harremanetan, bikotekideekin, militantzia politikoan... Gatazken aurrean naturaltasunez jarduteak eta kontsentsua bilatzeak harreman pertsonal zein politikoak indartzen ditu.

Gatazka kudeaketaren logika honetan interes kontrajarriak dituzten eragileek haien artean harremantzeko gutxieneko oinarri batzuk partekatzea onartzen dute, hau da, elkarren aurka lehiatzeko arauak zehaztea, alegia.

Egoera honen adibide bat hauteskunde politikoak dira. Gizartean gai publiko eta orokorren gaineko iritziz ezberdinak dituzten herritarrak egon ohi dira, lehentasunen arabera haien ordezkari izango diren alderdi politikoak eratzen direlarik: burgesak, gutxiengo nazionalak, langileak, ekologistak, erlijiosoak, landa eremukoak, laikoak... Egun ezagutzen ditugun demokrazia burgesetan alderdi politikoek hauteskundearen bitartez zehazten dituzte parlamentuko ordezkariak kopurua eta gobernu organoen presentzia. Lehia arauak zehaztuta, herritarrengandik boto gehien lortzen saiatzen dira ahalik eta botere gehien lortzearen.

Egoera batzuetan helburu kontrajarriak ezin dira inola ere ez adostasun bidez edo lehiaren bidez kudeatu. Orduan, gatazkako eragileak konfrontazio bidez harremantzen dira, gatazkaren garapena borroka bidez adierazten delarik.

2021eko Metaleko langileen greba, Cadiz

Espainiar eta frantziar estatuak Euskal Herria nazio gisa ukatu ez ezik zapaltzen jarraitzen dute (haien menpeko beste nazioek ere jasaten duten zapalketa). Euskal Herrian Euskal estatu independente eta sozialistaren sorrerarekin batera, espainiar eta frantziar estatuak haien lurraldearen zati bat galduko lukete. Hau da, bi subjektuk ezin dute lurralde zehatz bat partekatu: baten menpe ala bestearen menpe egongo da lurraldea. Estatuak burutzen duten zapalketa kontzientea den heinean, gatazka kudeatzeko ez dago negoziazio edo lehiatzeko aukerarik, ez dutelako haien posizioa borondatez alboratuko.

Beste gatazka eredu bat azaltzearen, langileok egunerokotasunean jasaten dugun soldatapeko lanean oinarritutako esplotazio ekonomikoa aipatuko dugu. Alde batetik burgesak daude, bestetik langileok

"Baina zapalketa baten aurrean konfrontazioa guztiz beharrezkoa da, ez dagoelako erdibideko aukerarik etsaia deuseztatzea ez denik."

gaude. Harreman ekonomikoa honetan, jabeek langileak esplotatzen dituzte. Langileok soldatapeko esplotazioarekin amaituko bagenu, burgesek ez lituzkete haien helburuak lortuko: ez lukete gainbaliorik erazuziko. Baina gaur egun bezala, burgesek esplotazioarekin jarraitzen badute, gu esplotatuak izaten jarraituko dugu. Helburu kontrajarriak dira horiek, langileok burutzen dugun lanaren jabetzaren gaineko gatazka, alegia. Lantoki bateko enplegu maila zehatzean, esplotatzaileekin negoziatzea ematen den errealitatea da: enpresako konbenioa lortu, lan baldintzak hobetu, soldata igo...

Horrelako negoziazioei esker langileon lan baldintzak hobetu eta enplegutik kanpo bizi baldintza egokiagoak izatea lortzen da, bizi proiektuak zehazteko, bai aisialdia burutzeko, edo militantzia garatzeko, besteak beste.

Parentesi moduan, gogoratu beharra dago negoziazio hauek ere mobilizazioetan eta borrokan oinarrituak daudela: zapaltzaileek ez dute ezer oparitzen! Hala ere, nahiz eta enplegu maila zehatzean negoziatzea lortu eta lan baldintzak hobetu, negoziazio hori burutu beharra sorrarazi duen gatazkak bere horretan dirau: soldatapeko esplotazioak aurrera darrai, burgesek langileon kontura etekinak irabazten jarraitzen dute, nahiz eta gutxiago izan. Hau da, nahiz eta baldintzak hobetu eta soldata igo, esplotazioa jasaten jarraitzen dugu.

Hortaz, burgesak etsai gisa ulertu behar ditugu, soldatapeko esplotazioaren injustiziarekin amaitzeko haiek desagertu egin behar dira eta. Klase gatazkarekin errotik amaitzeko ez dago konfrontazioa ez den gatazka logika posiblerik, negoziazio bitartez kapitalistek ez diotelako haien zapalketak gauzatzeko ahalmenari uko egingo.

Zapalketak gatazka bereziak dira, zeinetan helburu kontrajarrien kudeaketan etsaiak ditugun gure aurrean. Hau da, injustiziak modu kontzientean garatzen dituen eragile bat edo gehiago topatzen ditugu gatazka hauetan. Zapalketen bitartez boterea, indarra eta etekin ekonomikoa pilotzea bizimodu duten eragileek ez diote haien posizioari uko egingo negoziazioaren edo lehiaren bitartez.

"Langileok soldatapeko esplotazioarekin amaituko bagenu, burgesek ez lituzkete haien helburuak lortuko: ez lukete gainbaliorik erazuziko."

Gatazka mota batzuetan negoziazioaren beharra agertuko da, egunerokotasuneko esparruetan, esaterako. Baina zapalketa baten aurrean konfrontazioa guztiz beharrezkoa da, ez dagoelako erdibideko aukerarik etsaia deuseztatzea ez denik. Azken finean, zapaltzailea suntsitu bitartean, zapalketek eta injustiziek martxan jarraituko dute, nahiz eta hauek arinduak izan. Hortaz, iraultzaileen helburua zapalketarik eta esplotaziorik gabeko mundua eratzea izanda, gure jardun politikoan zehar zapaltzaileen aurrean konfrontazioa garatzearen garrantzia azpimarratu behar dugu momentu oro.

Hasierara bueltatu



HAUSNARKETA



GERRA MILITARKI BUKATZEAR SIRIAREN EGOERA Z

Azken asteotan AEBetako administrazioak bere arabiar estatu sateliteei Siriari Arabiar Errepublikara — hemendik aurrera SAE — enbaxadoreak bidaltzea ahalbidetuko diela ikusi dugu albistegietan. Alabaina, zehapen-ekonomikoen mehatxupean, hauei ez zaie permitituko edozein negozio egiterik suntsitutako elektrizitate sareak berregokituz, biziraun ez duten ospitaleak berbera ikusi edo errautsetatik eskola berriak sortuz. Orobat, Biden administrazioak etengabe “No normalization - No reconstruction - No lifting sanctions” axiomarekin dirau.

Era honetan, aipatutako hiruki honen oinarriaren lehen urratsak aurkitzeko, inperialismoak izendatu zituen balizko “Udaberri Arabiarrretara” jo behar dugu. 10 urte bete dituzten honetan. Errebolta hauen xede azpimarragarriena Siriak herrialde multikonfesionala izateari uztea izan zen, estatuaren jite akonfesionala errotik moztuz. Hauxe da Anaitasun Musulmana buru duen mugimendu atzerakoiak jomugan duen helburua, eta hau deuseztatzeke 1962an zein 1982an altxatu zen. Bi hauetan ez bezala, —horietan Baaz alderdi irakiarren eta Hashemi dinastia jordaniarren laguntza erregionala jaso baitzuen— 2011koan nazioarteko laguntza jaso zuen sektore honek.

Behin SESBen blokea jausita, siriar ekonomia sozializatzaileak liberalizazioa jo zuen apurka-apurka, nazioarteko gainontzeko herrialde aurrerakoi gehienek bezala. Hala, aliatuz eskas zegoela,

Hala, Clinton-Obama arduralaritzari Europar Batasuna batu zitzaion, Frantziako estatuak hau narrasteko abiatu zuen kanpaina dela medizio. Eliseo paristarrak izan duen rola bere iragan kolonialagatik duen nostalgien adierazgarria da, artean ez duelako onetsi 1946an siriar herri antolatutak frantziar metropoliaren armada indarrez kanporatu izana. Hala, Frantziako estatua uneoro esku-hartzen aritu da Bilad Al-Shameko etnia nahiz erlijioen artean zatidura sustatzeko, ezinetorri hauetan probetxu politikoa aurkituz. Zer esanik ez, duela hamar urteko martxoan herrialde osoan protestak biderkatzen hasi zirenean, motibo zilegiekin sarritan, Eliseoa eta Etxe Zuria jada Siriako estatua erasotzeko gertu zeuden.

Latinoamerikan ere harreman sendoak izan zituen Kuba, Ekuador eta Venezuelarekin. Alabaina, Iranen aurkako zehapen ekonomikoen eraginez, SAEk bere burua gero eta estutuago ikusi zuen. Honi landa-guneko langileen atsekabea batu zitzaion, 2008-2016 tartean zonaldeak azken 400 urteetan bizitako lehorre latzena bizi izan baitzuen. Aipatzekoa da, 1967tik Israelek ilegalki okupatzen duen Golan Mendikate urtsuak izanez gero, arazoari askoz hobeto aurre egingo ziokeela.

Gauzak horrela eta mailegatzailearik gabe, herrialdea NDFri hurbildu zitzaion, eta zenbait mailegu eskatu behar izan zituen 2010ean. Baldintzetako bat landa-gunean gobernuak hornitzen zituen diru-laguntzak gogor murriztea zen eta, horrenbestez, diru-laguntza hauek urritzean laborarien protestak piztu ziren. Aitzitik, egun batzuk beranduago gobernuak aldarrikapen hauek biguntzeko asmoz protestaldiekin bildu zenean eta diru-laguntzak berriro abian jarri zituenean, beranduegi zen jada.

Honela, Siriako gobernuari zerbait leporatzekotan, behar besteko prebentzioz ez jokatzeara lepora dakiok. Izan ere, 2003tik, Irak inbaditu orduko, Colin Powellek jada Bashar Al-Assadiri siriar patu posiblea iradoki zion, honek NATOrekin kolaboratu ezean. Era horretan, Siriar Armadak sionisten aurkako gerra buruan izanda, tropen gehiengoak hego-mendebaldean pilotuta zuen. Momentu berean, ez zion behar bezala erreparatu NATOren Incirlik

turkiar base militar erraldoitik, Jordania, Irak zein Libanotik sartuko ziren 300.000 jihadistak-takfiriei. Gainontzekoa historia da, 410.000 hildako eta hamaika familiaren negarrak “gerra zibil” gisa era desegokian aurkeztua izan den gatazkan.

Abisuak azkar heldu zitzaizkion SAEri, 2011ko apiril hasieran jada Banyaseko zubiko masakrea eman zen Siriar Armadaren aurka eta ekainean, berriz, Jisr Ash-Shugurrekoa. Berehala, inolako parterik izan gabe, Libiak une hartan bizi zuen gidoia inposatu zitzaion siriar langileei, eta hainbeste handiesten den nazioarteko komunitatea —hots, bloke atlantista— Siriar Gobernuak balizko preso politikoak askatu behar zituela errepikatzen hasi zen. Siriar Gobernuak, honela, men egitea erabaki zuen, Libiar Gobernuari gertatzen ari zitzaionari so egiten ari baitzen.

Inperialismoak azken pasarte hau makurkeriaz deskribatu izan du mass-media orotan, errelatoari buelta emanez aritu da eta. Honen ondorioz, Siriako gobernuak DAESH sortzen lagundu zuela kontatu dute hamaika hedabidek, hauek askatzeko dekretua ez aplikatzekotan Siria bonbardaketa mehatxupean zegoela arbuatuz. Mehatxu hauek konstanteak izan dira, 2013an SAEk zituen arma kimikoen harira beste behin sortuz, esaterako. Hauei dagokienez, Siriak arma kimikoen arsenal ezberdinak zituen, baina hauek 300 buru nuklear baino gehiago dituen entitate sionistaren aurkako disuasio-oreka mekanismoa ziren. NATO potentzien inbasioa ekiditeko, Errusiak bitartekari eran

jokatu zuen rola gakoa izan zen arma kimikoak suntsituz, nahiz eta handik aurrera horrek Israelek ia egunero Damasko beldurrik gabe bonbardatzea ekarri duen. Bistan da Siriako gobernuak irakaspen argia atera izana onartu duela, bai NDFrekiko harremana, bai preso jihadi-takfiriak askatzeara eta baita arma kimikoen papera ere.

Oposizioari dagokionean, esan bezala, gehiengoak atzerritik heldutako —88 nazionalitate zenbatu dira— takfiriez osatua egon da, balizko “Siriar Armada Libretik” hasiz eta honek bere baitan izatera heldu zen Abu Bakr Al-Baghdadik zuzendutako DAESHetik igaroz. Hauen arteko koordinazioa gakoa izan zen Aleppon oposizioak zenbait auzo har zitzen, esate baterako. Nolanahi ere, bazegoen beste oposizioko sektore bat, hiriguneko eta minoritarioa, SAEn nahiz atzerrian egitura sendoak zituzten talde islamistek txotxongilo gisa erabili izan dutena. Sektore kosmopolita honek, “askatasunaren” aldeko aldarri antzuak zabaldu zituen ikuspegi liberal batekin, bere baitan Internet bidez antolatutako gazteria urbanoa kokatuz.

Azken datu hau adierazgarria da, 2011 hasieran herritarren %22k soilik baitzuen Interneterako sarbidea SAEn. Diruduna zen sektore hau Al-Qaeda-ak aspalditik prestatua zuen plana instrumentalizatzeko oso erabilgarria suertatu zen, gatazka armatua behartzea ahalbidetuz. Hain erabilgarri izan baziren protestak talde suniar fanatizatuengatik monopolizatuak izateko, azken hauek sistema tribalaren berezitasunak bikain ezagutzen dituztelako da, landa eta hiri-eremuaren arteko ezberdintasunen berri ondo jakiteaz gain, atsekabea militarizatzeko ahalmen izugarria erakutsi dutelako historikoki. Bien bitartean, Israel, Saudi Arabia, Qatar edo Turkia milioika babes ekonomiko, militar zein logistiko eskaintzen ari zitzaizkien talde salafistei era publikoan. Azken honen kontrastea garden da, internazionaliki iskanbila itzela eragin baitzuen 2013 zein

2015ean, Iranek eta Errusiak Siriar Parlamentuak egindako larrialdi deiari (ez Bashar Al-Assaden gobernuak soilik, baita oposizio abertzale eta demokratikoak ere) erantzutea erabaki izana, Damasko Al-Qaedaaren eskutian jaustear zegoenean.

Balantzea eginez, duela hamarkada bat Mendebalde osoan islamiar terroristen eginkizunak zuriu dituzten NATO blokearen aldeko hedabideek ere, siriar langile abertzaleek isuritako odolez zikinduta dituzte eskuak. Komunikabide hauek “errebelde moderatu” edo “opositore demokratiko” gisa saldu dizkigute Al-Nusra Frontea, Ahrar Al-Sham, Nouredin Al-Zenki, Jaish Al-Islam, Ansar Al-Sharia edo gaur iparraldeko Idlib probintzian nagusi den Hay ‘at Tahrir Al-Sham taldeak. Euskal Herrian ez gara salbuespena izan, sharia gogorrena inposatuz Siria konfesionalizatzea bilatzen aritu diren salafisten jokabidea maiz ziritua izan baita, “siriar erregimen” ankerraren aurka ari zirenekoan. Mertzenario hauek, alabaina, europar langileen aurka Berlin, Paris edo Madrilan aritu izan diren egitura terrorista berekoak dira. Sirian jardutean, aldiz, mendebaldezaileen mentalitatean axola ez dutela ikusten dugu terrorista hauen atazek herritar arabiarrei burua moztean.

Hala, aurrera eginda, behin aurtengo maiatzaren 26an siriar hauteskunde presidentzialak ospatu direla, Bashar Al-Assadek ordezkatzen duen herria NATOri militarki garaitu duela argi geratu da. Hauei dagokienez, hauteskunde-prozesua burutu

izana garaipena da jada. Izan ere, siriarrek Al-Assad gaur Siriako gobernuaren sinonimotzat hartzen dutela ikusi behar dugu, herrialdean gerra osoan zehar geratu eta inoiz ihes egin gabe iraun du eta. Hala, 2012ko uztailaren Hillary Clintonek jaurti zituen adierazpenei erantzunez Al-Assaden egunak “zenbatuak zeudela” esan zuenean, honek bederatzi urte beranduago Damaskon bozka ematean NATO blokearen iritziak siriar hauteskundeei buruz sifr (zero, arabieraz) balio zuela berretsi zuen mikrofonoen aurrean.

Behin hamarkada bat igarota, emaitza argia da, siriar herria fronte militarrean garaile bada ere, sozialki inoiz baino egoera kaskarragoan aurkitzen da. Egoera hau zigor-ekonomikoek bonbek baino askoz gehiago hiltzen dutelako ematen da, behin fronte militarrek ixten ari direla txirotasuna ikaragarri areagotu delarik, adorea erakusten jarraitzen duen herrialde levantearrean. Zoritzarrez, guda-ekonomikoari dagokionez emaitza zeharo kezagarria izaten ari da, 2019ko udatik Trump administrazioaren Zesar Legeak jada tamalgarria zen egoera okertuz. Era honetan, bataz-besteko soldata 58 mila siriar liritan aurki dezakegu gaur, 17 euro eskas, NATO blokeak Brusela, Arlington eta Washingtonen bidez gauzatzen duen guda-ekonomikoak siriar txanponean eragindako deprezazioa aintzat hartuz.

Horiek horrela, herrialdeak 360.000 gerra-hildako daramatzanean, 2021. urtea azken hamarkadan, zalantza izpirik gabe, frontean hildako gutxien utzi dituen urtea da. Aurten, hildako kopurua 2014an genuena baino hamabost aldiz txikiagoa da. Egund, etetear dauden Deraák triskantzak entzuten

“zigor-ekonomikoek bonbek baino askoz gehiago hiltzen dutelako”

ditugu soilik, Idlibeko protektoratu turkiarra zein Eufrates ekialdeko protektoratu estatubatuarra askatuak ez baitira izan oraindik. Gauzak honela, COVID-19ren pandemiak jota dagoen Siriako estatuaren lehentasuna herrialdea berreraikitzea ekiditen duten koertzio neurri unilateralei aurre egitea da. Zehapen hauek zapalkuntza eran ematen dira, hauek ez baitira Nazio Batuen Erakundeagatik araututa dauden zigor edo santzio ekonomikoen tankerakoak, baizik eta inolako babes juridikorik gabe aplikatu diren neurriak.

Ez da harritzekoa, beraz, siriar langileek pandemiari iaztik aurre egiteko izan dituzten baliabideak zeharo murriztuta ikusi izana hamarkada bat lehenago izan ahal zituztenekin. Hala, inposatu zaien gerrak osasungintza-azpiegituraren %37 txikituta uzteaz gain, Europar Batasunak Estatu Batuekin batera aplikatutako jazarpen neurriek material medikua eskuratzea eragozten die. Eragozpen hauek inolako finantza-transakzio, inportazio eta nazioarteko sorten bidalketa burutzeari batzen dira, noski. Honek, espekulazile eta ustelei bidea gehiago ireki die, 2019ko urrian Libanon eman zen eztanda ekonomikoa jada irekitako bidea erraztuz.

Laburbilduz, egund 19 milioi pertsona bizi dira SAEn, asko daogoneko atzerriatik itzuli baitira gerra gelditzen joan den heinean, baina populazioa 22 milioikoa zen duela hamarkada bat. 19 milioi hauek, 14’5 txirotasun-mailaren azpitik bizi dira eta arrastorik ez dago lehen zuen elikadura autosufizientziak, osasungintza estaldura unibertsalaz ezta Italiaren mailako per capita diru-sarrerez. Ostera, 2021eko azaroan bertako beharginek pairatzen dutena berogailuetarako dieselaren gabezia, autotetarako gasolina horniketa eza, 4 orduko bai heltzen den eta beste 4 ordura heltzen ez den hornidura elektrikoa edota %217ra heldu duen inflazioa da.

Hala eta guztiz ere, siriarrek baizkor daude etorkizunari begira. Batetik, Liga Arabiarra itzuli ahal izatea inoiz baino gertuago ikusten dute, horrek ekarriko duen onura ekonomikoarekin. Gainera Siria erakunde sinbolikoa bada ere, siriar autoritateak ez dira ergelak eta oso presente dute entitate honek golkoko herrialdeekin batera 2011tik aurrera jokatu duten rol zipaioa, baina siriar herritarren gose-beharrak momentuz kontraesan hori edukitzera behartzen ditu. Bestetik, baldintzunez ikusten dabilta Vienako elkarrizketetan Iranen aurkako neurri ekonomikoa altxatu ahal izateko aukera gero eta posibleagoa, honek Sirian inbertsio askoz altuagoak berrnatuko lituzke eta. Bestalde, azken egunotan Siria ekialdetik mendebaldera erregaiak birfintzera bidaltzeko ekimenak gogo onez hartu dituzte, Eufrates ibaiak bi aldean adiskidetzak herrialdearen birsortze animikoa ekarriko bailuke.

Menura bueltatu

ELKARRIZKETA



• Firas Alcharani

Urte askotan zehar, 2011ko martxoan hasi ziren protesten inguruko bertsio ugari entzun izan dira. 10 urte igarota, 410.000 hildako, 8 milioi barne desplazatu eta beste 4 milioi kanpo desplazatu egon ondoren, Firas Alcharani, egun Valentzian beharrean diharduen damaskoar medikuarekin mintzatu gara. Firas gaztetan Siriako armadaren parte izan zen militante komunista dugu eta Siriako gobernuak eskatuta, Mendebaldean Siriako Arabiar Errepublikan jazotakoaren inguruko egiak zabaltzen aritzen da.

1. Zergatik eskatu zizun Siriako gobernuak bueltarik ez egitea? Zer funtzio betetzea eskatu zizuten?

Neure lehenengo bidaia 2012an burutu nuen. Hala ere, 2013tik aurrera Siriako gobernuak eskatuta Siriara borrokara abiatu beharrean, Europara etorri nintzen kosta ala kosta, egin ahalak egin ahala, Siriako gerraren inguruko informazioa eta Siriako gobernuaren jarrera eta posizionamendua argitzeko, eskura nituen baliabide guztien bitartez. Izan ere, gobernuak beharrezkoa ikusten zuen ematen ari ziren manipulazio guztiei aurre egin eta gerraren inguruko egien eta honen atzean zeuden interesen inguruko informazioa ematea. Argi dagoenez, eskura izan ditudan bideak oso eskasak izan dira, baina hala ere, jende askoren laguntzarekin, horien artean zuen antolakundea eta Siriaren aldeko mugimendua, bai konferentzien bitartez bai bestelako bitartekarien bidez, hitz egiteko aukera izan dut eta Arabiar udaberrien inguruko informazioa eman.

2. Bere independentziatik zeintzuk izan dira Siriaren posizio politikoa definitu duten mugarriak?

Bere independentziatik eta historian zehar Siriak pairatu dituen estatu kolpeak pairatu dituelarik, eta eman diren gobernu aldaketa guztiak direla medio, gaur arte herrialdeak beti jarrera erabat antisionista mantendu du zonaldeko etsaia edo arerioa zein den argi edukiz. Argi dago, NATO-ren jarrera beti izan dela Israelen aliatua izatea. Hori dela eta, NATO-ren sorreratik ez da egon inolako hurbilpenik eta, are gutxiago, elkar ulertzerik Siriarekiko. Izan ere, dirudienez Ekialde Hurbileko kaskagogorrak izan gara urte askotan zehar. Gauzak horrela, Siriako alderdi komunistak, tamalez gero eta eragin urriago daukanak gizartean, beti mantendu izan du NATO-ren aurkako eta inperialismoaren aurkako jarrera bat. BAAZ alderdia gobernura ailegatu zenetik ere mantendu izan duen politika.

3. Zer paper jokatu du NATO-k Siriako gerran? Zein izan da historikoki antolakunde honen jarrera Siriarekiko?

NATO antolakunde kriminala da, eta nahiz eta iraganean euren presentzia Varsoviako Itunaren bitartez justifikatu nahi zuten, hau desagertuta argi geratu da aitzakia hori ez zela nahikoa. Are gehiago, 90eko hamarkadatik ugaritu egin dira NATO-k gerren bitartez aurrera eraman dituen oldarraldiak, inperialismoaren interesak gidatuta. Hori dela eta, Siriak betidanik jarrera antinperialista mantendu izan duenez, hainbat eratan erasotu dute herrialde hau. 2011tik emandako gertaerekin, hauek Persiar Golkoko herrialdeen petrodolarrek babestutako sionismo internazionalaren interespeko mugimendu azala agerian geratu zen, Europako inteligentzia zerbitzuekin elkarlanean aritutakoa. Azken finean, NATO bere base militarren, armamentu eta logistikaren bitartez Siria presionatzeko erabili den instrumentua edo tresna izan da. Horrek agerian uzten du Estatu Batuarrek gerran Siriaren aurka burutu izan dituzten eraso zuzenak, ez baitzen nahikoa zeharkako era batean mertzenarioak bidaltzearekin. Argi eduki behar baitugu gauza bat, Estatu Batuarrek Siriako gerran era zuzenean parte hartzen ari dira eta NATO Estatu Batuak dira.

"Bere independentziatik eta historian zehar Siriak pairatu dituen estatu kolpeak pairatu dituelarik, eta eman diren gobernu aldaketa guztiak direla medio, gaur arte herrialdeak beti jarrera antisionista mantendu du zonaldeko etsaia edo arerioa zein den argi edukiz."

4. Zer balorazio egiten duzu Arabiar udaberriez?

Udaberri arabiarren helburua kaosa eta suntsipena zen eta honekin eskualdean gerrak sorraraztea, gerren bitartez hau ahalik eta gehien zatitu eta bere menperatzea errazteko. Horrelako dinamikak eta mugimenduak Israeleko Estatuaren interespean burutu dira. Izan ere, Israelek bere eskualdean bere mesedepeko ezegonkortasuna sustatu izan du bere sorreratik, bai gerren biartez, bai bestelako ekintzen bitartez. Ekintza hauek ondorio argiak eduki dituzte, bere aurkako erresistentzia ardatza denboraren bitartez handituz joan delarik eta, agian, gaur egun, 2021ean, Israelen posizioa mehatxatuta ez ikusi arren, 2031n ezberdina izango da.

"Siria suntsitzea betidanik izan dela Israeleko agendan jasotako lehentasun bat."

Horren adibide ditugu 2006an Libanoren aurka burututako gerrak edo 2008tik Siriaren aurka era iraunkorrean burututako erasoak edo Irak-eko Estatuaren suntsiketa. Hala ere, erasoak eraso, Siriako estatua beti mantendu izan da erresistentzia ejearen baitan eta horren adibide dugu Israelek Altos del Golanen en duen okupazioa. Dena den, Siria egoera horretan ez da otzan geratu eta Hezbola bezalako taldeei 2000. urtera arte laguntza eskaini izan die, borrokalariai igarotzea ahalbidetuz edota bere lurraldean entrenatzea ahalbidetuz. Hori dela eta, argi dago Siria suntsitzea betidanik izan dela Israeleko agendan jasotako lehentasun bat, erabateko makiabelismoaz aurrera eramaten saiatu izan dena. Horretarako israeldarrek baliatu izan duten armarik eraginkorrena erlijioa izan da. Izan ere, gatazka parametro politikoetatik harago, izaera erlijiosoko gatazka sektarioen baitan kokatu nahi izan dute. Horren adibiderik argiena dugu Iraneko islamiar iraultzaren aurka burututako erasoak. Argi eduki behar da niretzat iraultza hau islamiarra izatea gutxienez, Iraneko iraultzari dagokionez, garrantzitsuenak bere izaera antisionista eta Israel suntsitzeko mantentzen duen intentzio irmoa baitira. Gauzak horrela, argi ikusi da edozelan ere ez dutela Siria bai gerraren, bai bestelako santzioen bitartez suntsitzea lortu.

• 2013ko urriak 20, Aleppo-ko Bustan Al-Qasr auzoko gasolindegia baten eztanda, Siria

5. Maila internazionalen zeintzuk izan dira Siriari laguntza eskaini diotenak? Zer balorazio egiten duzu bakoitzaren inguruan?

Zalantza izpirik gabe, Siriak ez zuen bizirautea lortuko bere erorketaren garrantziaz jabetuta laguntza eskaini izan dioten lagunik gabe. Hor bereziki pertsona bat aipatu nahi dut, eraila izan zena baina berebiziko analisi estrategiko sakona zuena, hain zuzen ere, Souleimani generalaz ari naiz. Izan ere, honek Siriako gerrari Iranen baitan eman zion enfokea aipagarria da, Iranek hasieran ez baitzeukan oso argi gerra honetan mantentzen zuen postura. Azken finean, betidanik estatu islamiarra izatean hainbat mugimendu islamistekin edo, agian, guztiekin ondo eraman izan da, tartean Hamas, talibanak edota bestelakoak. Hala ere, hori bestelako eztabaida da.

Orduan, Souleimaniri esker ikusi zuten Israelen intentzioa Siriako estatua suntsitzea eta hainbat enkantetan edo eskualdetan zatitutako gunea bilakatzea zela, eta interes hauei aurre egitearren hasi zen Iranen laguntza. Bestalde, aipatzekoa da, Errusiak emandako laguntza ere. Esaten dutenaren arabera, Souleimanik Moskura bidaiatu zuenean, Putinekin 7 ordu egon ostean, honek ideiaz aldatzea lortu zuen. Nik ez dut pentsatzen ideiaz aldatzea lortu zuenik, baina bai errusiarren parte hartzea azkartu zuela. Izan ere, errusiarrek argi zuten goizago edo beranduago parte hartuko zutela. Ziur asko ez 2015ean, baizik eta apur bat beranduago, arrazoi geopolitikoengatik eta errusiarrek beraiek jarraitu zituzten kriterioengatik. Gainera, azken finean errusiarek bai euren atzerriko zerbitzu sekretuen bitartez, bai Siriako inteligentziaren bitartez soberan zekiten zein zen egoera eta jazotzen ari zena. Argi dago, beranduago parte hartu izan balute,


"Errusiari esker izango ez balitz, egun Siria ez litzakeela existituko."

egoera askoz ere kaskarragoa izango zela, baina argi utzi beharra dago errusiarren babes baldintzarik gabekoa izan dela ere eta Errusiari esker izango ez balitz, egun Siria ez litzatekeela existituko.

Errusiarren eta Iranen babesaz harago, Txina bere betoan bitartez ere erabakigarria izan da. Bestela, Siria NATO-rengatik inbaditua izango zelako NBE-ren Segurtasun Kontseiluaren aho bateko onepenenarekin, Libian gertatu zen moduan, makina propagandistikoa martxan baitzegoen eta Libiarekin gertatu zena baina askoz ere modu bortitzeagoan. Aldi berean, Hezbolak ere paper erabakigarria jokatu du Siriako zenbait zonaldetan, ez guztietan, baina bai batez ere Libanoko frontieratik hurbileko zonaldetan, zeinetan Israeleko armamentua eta bere matrikulak zituen kamioi zisternak antzemanak izan ziren. Hezbolaren laguntza izugarria izan da eta honek etorkizuneko israeldarren aurkako borroketarako indarrak eman dizkie, ez ia milizia moduan, baizik eta milizia ejertzito moduan. Aurreko guztiek emandako babes erabakigarria izan da eta eurak gabe egun ez litzateke existituko Siriako Estatua.

6. Zein izan da Siriako gerraren inguruan Europar Batasunaren jarrera? Zer iritzi duzu Europar Batasunari dagokionez?

Zer esan dezaket Europar Batasunaz bertako langileek jada ez dakitena. Hasteko, Europar Batasuna nire ikuspuntutik ez da existitzen, izan ere, FMI, Estatu Batuarren eta sionismo internazionalaren beste tresna bat baino ez da. Hauen zuzenbidea eta agindurak buruz betetzen dituzte, santzioak jarri behar badira jarri egingo ditugu, Siriako diplomatiko bat sartzen utzi behar ez baldin badugu ez diogu utziko, banku mailan ekintzak burutu behar baditugu egingo ditugu.



Europar Batasuna instrumentu bat da, beti paper kaltegarriak jokatu izan dituen, kapitalaren Europar Batasuna baita eta Iranen aurka Sirian diharduten bezala, Venezuelan, Kuban edo Nikaraguan dihardute. Ez dute, inolaz ere, langileak edo bestelako mundu batean pentsatzen duten pertsonak ordezkatzten. Hala ere, Europar Batasuna gero eta ahulago dago, BREXIT-aren gaia, euren arteko lehiak, kuotak edota Covid-en harira euren artean edukitako elkartasun urria ikustea besterik ez dago. Ez da existitzen Europar Batasuna. Hau menderatzen duten 3 edo 4 estatuak existitzen dira, ez baitago ezta batasun sozialik, ez ekonomiko ezta politikorik ere. Horren erakusgarri dugu bizi mailari dagokionez, erabateko miserian, kaosa eta mafiengatik menderatutako herrialde batean bizi den bulgariar edo errumaniar bat Suedia bezalako herrialdeetako baldintzekin konparatzea, ez dago kolorerik.

7. Zer balorazio egiten duzu Europar Batasunak integrista islamiarrekiko burutzen duen Realpolitik-aren inguruan?

Zazpigarren galdera interesgarria deritzot. Europar Batasunarentzat bere interesei erantzuten dien edozein gauza errebelde, moderatu eta bestelako jantziekin jantzen dute, nahiz eta alde zurretik ondo dakiten moderatutik ez daukala ezer ere ez. Gero Siria menderatzea lortuko balute, etsaiak izatera igaroko lirateke, talibanekin gertatu zitzaizen moduan. Talibanena dugu adibiderik onena. Hasieran, Reaganen garaian komunismo maltzurra suntsitu eta garaitu behar zuten askatasunaren aldeko borrokalariak ziren. Argi geneukan Afganistanen ez zegoela inolako komunismorik, baizik eta gizartea eraldatzen saiatzen ari zen alderdi sozialista bat.

Sasoi hartan munduko gizarterik atzerakoiena zeukan eskualdeak, ez baitago Pastunena baino gizarte atzerakoiagorik, oraindik ere Afganistanen eta Pakistanen XVI. mendean legez bizi behar baitira. Baina sozialistak bide onetik zihoazenez, askatasunaren aldeko borrokalariaren beharra zeukaten mendebaldeko herrialdeek, eta gero behin euren helburuak lortuta terroristak ziren. Orain ez dakite zer egin eurekin ezta nola erabili ere. Hala ere, nik ez dut pentsatzen Estatu Batuarrek Afganistanen porrot egin izan dutenik. Izan ere, betiko moduan euren interespean baliatuko dituzte horrelako taldeak eta gogoratu beharra dago, Taliban eta Daesh-aren arteko marra oso oso mehea dela eta ikusiko duzue zelan laster nahasten diren, Sirian gertatu zen bezala. Siriaren kasuan, siriar ejertzito askeko zenbatak bukatu zuten Al-Nusra eta Daesh-ean borrokan? Marrak oso finak dira, eta Afganistanek une honetan bere funtzioa beteko du, Estatu Batuarren interespean Iran eta Txinari arazoak sorraziz, hauekiko duten gertutasuna dela eta.

"Zeren errebelde? Gustatuko litzaidake jakitea Europar Batasunarentzat errebelde komunistak, sozialdemokratik, siriar nazionalistatzat existitzen diren"


Bertan DAESH-ak gero eta indar handiagoa hartuko du, hobeto finantzatuta egongo da, Saudi Arabiarra ez baita bere finantziazioan geratuko, herrialde maltzurra baitugu hau. Horrexegatik diot Europar Batasunak bere interesen arabera abizen polita ematen diela horrelako taldeei, dena aldatzen den uneraino errebeldeztat joz. Zeren errebelde? Gustatuko litzaidake jakitea Europar Batasunarentzat errebelde komunistak, sozialdemokratik, siriar nazionalistatzat existitzen diren, izan ere, eurek babesten dituzten errebeldeen atzetik beti Korana eta Sharia besterik ez dago.

Erabat jakitun dira kontzeptu hauek erabiltzen dituzten terroristak direla, baina eurek erabaki arte moderatuak dira, Siriako estatuan Arabiar Saudiaren ideietatik hurbileko konstituzio erlijiosoduna lortzen den arte. Argi eduki ez zaiela, inolaz ere, Siriako demokrazia interesatzen.

8. Zer duzu esateko ekainaren 26an burutu ziren hauteskundearen inguruan?

Ekainaren 26ko hauteskundeak gerran murgilduta dagoen herri baten testuinguruan ulertu behar ditugu, halaber, horien aterabide bakarra Siriako presidentea denlarik. Argi eduki behar duzue Siriatic kanpoko jendeak ere presidenteari eman diola bozka, ondo baitakite behin askatasunaren aitzakiapeko sasi propagandaren harresia gainditu eta begiak irekitakoan, zeintzuk diren errebeldeak eta hauen atzean ezkutatzen diren izaera integrista eta islamista interesak. Horren adibide dira hainbatetan burutu dituzten masakreak, lepo eta buru mozketak herriko plazetan.

Horren ondorioz, aldaketa politiko bat komeni zela pentsatzen zuen jendeak edota BAAZ-k herrialde guztia menderatzen ez zuela pentsatzen zutenak. Izan ere, honek estatuaren eremu administratibo eta politiko guztiak menderatzen ditu. Nahiz eta Siriako parlamentuak hainbat alderdi eduki, hauek fronte politiko bateratu bat babestu dute eta konturatu dira siriarren salbazio bakarra Bashar al-Asad dela. Hori dela eta, jendeak bere alde bozkatu du era masiboan, argi eduki behar baitugu egungo atakan hautua zuri edo beltza dela, eta jendeak zuri bozkatu du, ez baita matizentzako garaia. Agian biharko egunean gerra gaindituta, Siriak bere lurraldeak berreskuratuta hazkuntza ekonomikoa dagoenean, bata edo bestearen arteko bozka egitea komeniko da, baina egun hori ezinezkoa da.



• Mendebaldeko herrialdeek babestutako "errebeldeak"

9. Zein da Siriako komunisten posizioa Bashar al-Ásad-en lidergotzaren inguruan?

Siriako parlamentuan parte hartzen duten komunistak zein ideia marxista-leninistak zein ezkertiarrek edukiz, alderdi komunistatik kanpo dauden pertsonak babestu egiten dute, nahiz eta nolabaiteko lotsaz burutu. Eurei hau ez babestea gustatuko litzaike eta, are gutxiago, BAAS-en nazionalismo arabiar klasikoa. Imajina ezazu ze puntutara ailegatu garen, ezen egun zenbait baathistek arabiar batasuna aldarrikatzen duen nazionalismoa zalantzan jartzen dutela, gerran euren anai zeritzotenak zelan traizionatu egin dituzten ikusita. Alderdi horretan ere, goi mailatan ere, publikoki beste gauza batzuk esaten dituzten arren, gauzen beste kontzeptu bat daukatela baieztatzen dizut.

Siriako alderdi komunistako gehiengoak egungo babesarekin bat egiten du, lehentasuna Siriaren askapena baita, gerora aurrekoa baino hobea izan behar den konstituzio berri bat lortzera bidean, ez egungo eran, non alderdi erregionalak, etnikoak eta erlijiosoak parlamentuaren parte diren. Lehentasuna izaera politikoko alderdiak sortzea izan behar baita, eta botere legegilean lehengo zenbait kontzeptu murriztea, hauek lehentasunezko aferak baitira. Hortik dator, hain zuzen ere, babesa baldintzatzen duen gako nagusia. Orokorrean esan dezaket parlamentuan daudenak Bashar al-Asad babesten dutela eta bere herrialdea eramateko era gaur egunera arte. Hori dela eta, jende gehienak bere burua ezkertiarraztat dauka eta Siriako bi alderdi komunistek hau babestu egiten dute, Siriako gerraren atzetik inperialismoa eta Israeldar Estatua baitago.

10. Zein uste duzu izango dela Siriaren etorkizuna?

Herrialdea une honetan egoera delikatu bat bitzen ari da maila ekonomikoan. Egia esateko, jendea asko jasaten ari da eta hainbat mafia existitzen dira honen kontura aberasten ari direnak. Hori dela eta, jendea nahiko txirotuta dago. Esan dudan bezala, eutsi egiten diote baina desilusio handiarekin. Jende gazteak, azken finean, atzerrira joan nahi du eta ulertu beharra dugu Siriari ezinezkoa izango zaiola suspertzea bere jendea gabe eta afera honek niri asko kezkatzen nau.

"Siriako lurraldearen osotasuna berreskuratzea lortzen denean, hau da, azkeneko turkiar soldadua kanpora doanean lortuko dela bakarrik egoera iraultzea"

Argi dago Siriako lurraldearen osotasuna berreskuratzea lortzen denean, hau da, azkeneko turkiar soldadua kanpora doanean lortuko dela bakarrik egoera iraultzea. Ondo ulertu behar baitugu amerikarrak azkenean joan egingo direla eta mertzenario kurdoak Afganistaneko ejertzitoa bezala desagertuko direla, gerora, gerra honen zauriak denboran zehar irekita mantenduko duten mendekuei bidea irekiz. Hori dela eta, behin lurralde egonkortasuna eta hazkuntza ekonomikoa lortutakoan bakarrik hitz egin ahalko dugu herrialdearen etorkizunaz, orduan bakarrik edukiko dugu etorkizunari begirako perspektiba baikorra. Siriaren herria kapaza baita Txinaren laguntzarekin eraiki eta ekoizteko. Azken finean, Txina gai baita Siria guztia berreraikitze eta gauzak jada sinatuta daude. Argi dago hau ez dela debalde izango, Siriako kostaldearen erabilaren truke baizik, nahiz eta guk horretarako ez daukagun inolako arazorik.

"etorkizunaz hitz egin ahal izateko, egonkortasuna halaber, azkeneko turkiar soldadua kanpora doanean lortuko dela bakarrik egoera iraultzea"

Etorkizunean petroleo eta gasa izan beharko lirateke Siriako ekonomia zutabeak, errusiarrentzat zonalde hau Mediterraneoko zonalde estrategiko bilakatzeko punturaino. Hala ere, berriz ere diot, hau gertatu ahal izateko etorkizunaz hitz egin ahal izateko, egonkortasuna halaber, azkeneko turkiar soldadua kanpora doanean lortuko dela eta hazkunde ekonomikoa egon behar dela. Siriaren gosea pasatzeari utzi behar diote, behin baldintza hauek emanda Siriako herrialdea ez baita kezkatu beharko 5-10 urtetan dituen ur eta energia erreserbez. Nire ustez, herrialdetik joan diren siriar gehienak, azkenean buelta egiten bukatuko dute lur honekiko daukaten lotura dela eta. Eta nik, nahiz eta Espaniako eta Bulgariako herrialdeekin lotura handia eduki, ziur asko etorkizunean nire aberrira itzuliko naiz, etxe bat eraiki eta nire jendearekin egoteko.

• 2019 urriak 4, turkiar soldaduak al-Hashisha herrixka inguruan, Siria